

## Altza



Udaletxeak Altzarako proposatzen duena eraso bat besterik ez da Altzarentzat. Plan Orokorren ondorioak latzak izango dira gurean. Donostian eraikiko duten etxebizitza kopuruaren 4tik bat Altzan eraikiko dute. Altzako etxebizitza kopurua %50 igoko da eta, ondorioz, biztanle dentsitatea ikaragarri handituko da. Hiriko beste auzoetan ez bezala, Altzan ditugun kirol-ekipamendu urriak suntsitu egingo dituzte etxebizitza gehiago egiteko; kultura-ondarea bera ere suntsitu izan dute. Eta hori onartezina da!

Roteta, Oleta, Eskalantegi, Buenavista eta Las Mercedes auzoetan dauden eremu libreetan etxebizitza gehiago eraiki nahi dute eta, horrela, ez dute inolako zirrikiturik utziko etxebizitza-blokeen

arteak. Industria-lurzoria ere etxebizitza gehiago eraikitzeke erabiliko dute. Inolako proposamen zehatzik gabe esku hartzen du udaletxeak Altzan; dena den, sekula ez du esku hartzen ekipamenduak ugaritzeko, biztanle dentsitatea gutxitzeko, pilotuta dauden eremuak arintzeko edo Altzako auzoen arteko loturak hobetzeko.

Beraz, Plan Orokorren etxebizitzak %50 ugaritzeko besterik ez du balioko; ez, ordea, eraikitakoa hobetzeko. Eta gainera, Hirigintzako zinegotziari hitz lotsagarri hauek entzun behar izan dizkiogu: Altzan eraikitzeke garaia iritsi dela azkeneko 30 urteetan ez delako ezer egin! Hemendik gogorazi nahi diogu 70eko hamarkadan etxebizitzak eraiki zirenean, baimendutako ustiapenak legearen kontra

El Nuevo Plan General de Ordenación Urbana del Ayuntamiento de Donostia no es más que una agresión para Altza. Uno de cada cuatro viviendas que se prevén construir en la ciudad, se construirá en Altza. Por lo tanto, el número de viviendas aumentará en un 50%, con lo que la densidad se incrementará considerablemente. Al contrario que en otros barrios, en Altza destruirán los pocos equipamientos deportivos que tenemos para la construcción de viviendas.

Ante este abuso, y viendo que el Plan no propone soluciones para resolver las carencias de Altza, hemos iniciado una recogida de alegaciones. Desde aquí animamos a [tod@s l@s altzatarra](mailto:todos@altzatarra.euzkadi.net) a que consigan una hoja de alegaciones para hacer frente al "Plan" del Ayuntamiento.

gaiturak zituztela udaletxearen onespenezekin. Horregatik ezin da erretzatu Altzan gehiago eraikitzeari eta beharrezkoak ditugun gune publikoak gutxitzeari.

Gauzak horrela, Altzak gabeziak izango ditu aurrerantzean ere. Izan ere, ondo dakigu biztanleria handitzeak eta, aldi berean, gune berdeak eta ekipamenduak gutxitzeak bizi-kalitatea okertzea duela. Alegazio bilketa hasiko dugu egunotan. Abuztua izan arren, eta altzatar ugari oporretan izan arren, alegazio-orreren bat eskuratu eta egin planto plan horri! Bestelako hainbat ekimen eta mobilizazio ere egingo dugu ikasturtearen hasieran. Altza hobetzeko balioko ez duen plan horren aurrean, altzatarrok hitza hartuko dugu.